

**SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN  
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN EZOHIKO SAIOAREN AKTA**

**2020KO URRIAREN 30eko SAIOA**

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko goizeko ordu bata dela, eta Presidente jaunak alde zuzenetik deituta Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ezohiko bilera egin du, kontseilua eratzeko xedez. Bileran honako hauek hartu dute parte:

Presidentea: Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn.

Bokalak:

**Eusko Abertzaleak Udal Taldea (EAJ-PNV)**

Itziar Carrocera Fernández and.

Cristina Azpiolea Veiga and.

Gorka Charre Marín jn.

Jon Carrera Rodero jn.

Joseba Ramos Ariasjn.

**Sozialistak Udal Taldea (PSE-EE-PSOE)**

Juan E. Andrades García jn.

Itziar Utrera Pérez and.

Olga Pastor Albizu and.

**EH Bildu Santurtzi Udal Taldea**

Miren Matanzas Gorostizaga and.

Joxi Martín Haba jn.

**Elkarrekin-Podemos-Ezker Anitza Equo Udal Taldea**

Ainhoa Lopera Corada and.

Zuzendaria: Carlos Morán Arostegi

Teknikaria: Margarita Olabarrieta Sobera and.

Kontu-hartzaile eskuordea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordea: Ricardo Villanueva Puertollano

Presidente jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

## **1. SKAko LANGILEEN PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA PROPOSATZEA, IRIZPENA EMATEA ETA UDALEKO KULTURA ETA EUSKARA ARLOARI BIDALTZEA.**

Presidenteak autonomiadun erakundeko 2021eko langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzeko proposamenaren berri eman du, Artezkaritza Kontseiluko kideei alde zuzenetik emandako dokumentazioaren arabera.

Ez denez parte-hartzerik izan, presidente jaunak erabakiari buruzko bozketa egin du:

Eusko Alderdi Jeltzale eta Euskal Sozialistak udal taldeetako ordezkariak aldeko botoa eman dute (9 boto). EH Bildu eta Elkarrekin Pedemos-Ezker Anitza Equo udal taldeek, berriz, abstentzioa agertu dute (3 boto). Hortaz, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du onartzea langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda 2021 urterako.

## **2.- SERANTES KULTUR ARETOAREN 2021eko EKITALDIRAKO AURREKONTU-PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Presidenteak autonomiadun erakundearen 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren berri eman die kontseiluko kideei. Jarraian, udal taldeen ordezkariak hartu dute hitza. Esku-hartze horiek grabazioan jasota daude.

## **3.- SERANTES KULTUR ARETOAREN 2021eko EKITALDIRAKO AURREKONTUA PROPOSATZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.**

Ez denez parte-hartzerik izan, presidente jaunak erabakiari buruzko bozketa egin du:

Eusko Alderdi Jeltzale eta Euskal Sozialistak udal taldeetako ordezkariak aldeko botoa eman dute (9 boto). EH Bildu eta Elkarrekin Pedemos-Ezker

Anitza Equo udal taldeek, berriz, abstentzioa agertu dute (3 boto). Hortaz, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du autonomiadun erakundearen 2021 urterako aurrekontua onartzea.

Saioaren grabazio osoa honako esteka honetan entzun daiteke:  
<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/zzLaIQ9VuO7Hk0s>.

Jorrazeko beste gairik egon ez denez, kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den eguneko 13: 20an. Eta nik, organo honen idazkari eskuordea naizen honek, hau guztiau ziurtatu egiten dut.

OE  
Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn.

Idazkari eskuordea  
Ricardo Villanueva Puertollano

